

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EGITURA METALIKOKO PRODUKTUAK FABRIKATZEKO ETA MUNTATZEKO MATERIALAK	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0604		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Eraikuntza metalikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Galdaren eta egitura metalikoen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Egitura metalikoko produktuen diseinua	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Egitura metalikoko produktuen ezaugarrien zehaztapena		80
	Egitura metalikoko produktuak fabrikatzeko eta muntatzeko dokumentazioa	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1146_3ko LB2 lanbide-burutzapenarekin: EGITURA METALIKOKO PRODUKTUAK DISEINATZEA.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Egitura metalikoko produktuak fabrikatzeko eta muntatzeko behar diren materialak zehaztea eraikuntza-planoen eta materialen espezifikazioen arabera, kalitate-arauak eta laneko eta inguruneko arriskuak prebenitzeko arauak betez.

EI1.1 Egitura metalikoko produktuen piezak fabrikatzeko eta muntatzeko materialak —karakterizatuak eta kodetuak— esleitzea.

EI1.2 Prozesuaren faseak, eremuak edo lan-ildoak identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea, hainbat eraikuntza-estrategiaren arabera.

EI1.3 Materialen hornikuntza-orri bat prestatzea orri tipo batean.

EI1.4 Egitura metalikoko produktu baten fabrikazioan, non dokumentu teknikoak entregatzen diren:

- Hainbat prozesu, eremu eta lan-ildotarako material-zerrendak egitea.
- Zerrendako elementu bakoitza definitzea bere erreferentzia, dimentsioa, mota eta materialaren kalitatearen arabera.
- Materialen gainazal-tratamenduak, sekuentziak eta aplikazio-teknikak zehaztea.

Edukiak

1. Egitura metalikoetako erabiltzen diren materialak

- o Egitura metalikoetan erabiltzen diren material-motak. Saikapena, izendapena, propietateak, manipulazioa eta portaera.
- o Materialen propietateak: fisikoak, kimikoak, mekanikoak eta teknologikoak. Metalen deformazio plastikoaren azterketa.
- o Egiturretan erabilitako altzairuaren propietateak.
- o Materialen forma komertzialak: xafra, profil eta hodi normalizatuak. Motak, kalitateak, nomenklatura eta merkaturatze-siglak.
- o Egitura-profilak: motak, izendapena, neurriak eta sekzio-datuak.
- o Tratamendu termikoak eta gainazal-tratamenduak: arau eta espezifikazio teknikoak, oinarria eta helburua, motak, aplikazioak, prozedurak, kontrolatu beharreko aldagaiak, materialen ezaugarrietan duten eragina.
- o Materialak kodetzea.
- o Akatsak detektatzea eta ebaluatzea.
- o Metalen korrosioa aztertzea.
- o Egitura metalikoak babestea.

2. Egitura metalikoak fabrikatzeko eta muntatzeko prozesuak.

- o Egitura metalikoetako fabrikazio-prozesuaren faseak:
- o Egitura metalikoetako muntaketa-prozesuaren faseak:
- o Ekoizpena planifikatzeko teknikak: eremuak, lan-ildoak eta makinak. Haien arteko erlazioa.
- o Materialen hornikuntza-orriak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.

- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Galdaren eta egitura metalikoen diseinua.